



FARMAZIA – ARABAKO ESI-A

Lehen Mailako Arretako Farmazia

e-mail.: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

2025-eko Martxo

AEMPSen ESTRATEGIA BERRIAK HERRITARRENGANA HURBILTZEKO

1

[Jarraitu irakurtzen](#)

AEMPS: GIZAKIENTZAKO MEDIKAMENTUEN SEGURTASUN-BULETINA

2

[Jarraitu irakurtzen](#)

INHALAGAILUEN PRESKRIPZIO JASANGARRIAREN GIDA eta “ZURE INHALAGAILUA ETA PLANETAREN OSASUNA” INFOGRAFIA

3

[Jarraitu irakurtzen](#)

MEDIKAMENTU ARRISKUTSUAK OSASUN-INGURUNEETAN

4

[Jarraitu irakurtzen](#)

ARGITALPEN INTERESGARRIAK

- i-botika: Zergatik da garrantzitsua medikamentuekiko atxikidura?
- SEFAPen infografia berriak: Ba al dakizu zer den obesitatea eta nola saihestu?
- Prioritising shared decision-making
- Adverse effects of antihypertensives in frail older people
- STOPPCog irizpideak

5

[Jarraitu irakurtzen](#)

MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA –BERREZARPENAK

6

[Jarraitu irakurtzen](#)

7. LMAKO MIKROBIOEN AURKAKO GIDAREN AURKEZPENA ETA AEOP SAIOAK OSASUN ZENTROETAN: GERNU-TRAKTUKO INFEKZIOAK (GTI)

7

[Jarraitu irakurtzen](#)

1

AEMPSen ESTRATEGIA BERRIAK HERRITARRENGANA HURBILTZEKO

[AEMPSen Instagram-eko profil berria](#)

AEMPSek Instagram-eko profil berria kaleratu du: [@aemps.gob](#). Helburua da herritarrentzat erabilgarriak izan daitezkeen medikamentuei, osasun-produktuei, biozidei eta norberaren zaintzarako produktuei buruzko interes orokorreko era guztietako edukiak modu bisualagoan eta dibulgatzaileagoan lantzea, eta osasun publikoko informazio zehatza interes-talde guztietara hurbiltzea, zuzenean eta eraginkortasunez.

[MeQA](#)

AEMPS-CIMaren sendagaiei buruzko online informazio-zentroak gizakientzako medikamentuei buruzko galderei erantzuteko sistema automatikoa (MeQA) txertatu du bere orri nagusian, sendagaiei buruzko zalantzak azkar erantzuteko. [Esteka](#) honetan dago eskuragarri.

2

AEMPS: GIZAKIENTZAKO MEDIKAMENTUEN SEGURTASUN-BULETINA

2024ko abenduan, [Gizakientzako Sendagaien Segurtasunari buruzko Buletin](#) berria argitaratu zen, farmakozaintzako datuen aldizkako ebaluaziotik eratorritako segurtasun-informazio berriarekin. Ebaluatutako medikamentuen artean, honako hauek nabarmentzen ditugu: aklidinio bromuroa, enpaglifozina eta enpaglifozina/metformina, metformina, nebibolola, prometazina, takrolimusa.

3

INHALAGAILUEN PRESKRIPZIO JASANGARRIAREN GIDA eta “ZURE INHALAGAILUA ETA PLANETAREN OSASUNA” INFOGRAFIA

Osasun Ministerioak, zenbait elkarte zientifikorekin elkarlanean, inhalagailuen preskripzio jasangarrirako gida bat argitaratu du. [Esteka](#) honetan dago eskuragarri. Gomendatzen du lehentasuna emateko karbono-aztarna baxuagoa duten inhalagailuei (hauts lehorreko, laino fineko edo ager daitezkeen bestelako gailuei), kartutxo presurizatuko inhalagailuen aldean, ingurumen-inkaktuia murrizteko. Inhalagailuak banaka eta pazientearekin adostuta agindu behar dira, eta tratamenduarekiko atxikipena eta inhalazio-teknikaren erabilera zuzena berrikusi behar dira. Gainera, inhalagailuak birziklatzea sustatu behar da, ingurumen-kudeaketa egokia izan dadin.

Horren harira, Espainiako Ospitale-Farmaziako Elkarteko (SEFH) Neumo taldeak gai horren inguruan kontzientziatzeko herritarrei zuzendutako infografia bat argitaratu du, eta gaztelaniaz eta euskaraz eskuragarri dago [esteka](#) honetan.

ZURE INHALAGAILUA ETA PLANETAREN OSASUNA


Ba al zenekien inhalagailuak hainbat osagai osatzen dituztela?



Ba al zenekien osagai horiek ingurumenean eragin dezaketela?



Inhalagailuen karbono-aztarna ezagutzen duzu?

Karbono-aztarnak berotegi-efektua neurtzen du, CO₂ kg gisa

*Inhalagailu bakoitzaren arabera aldatzen da



ZURE INHALAGAILUA ETA PLANETAREN OSASUNA

Zer egin dezakegu inpaktua minimizatzeko?



Zer medikamentu utzi daitezke SIGRE puntuan?



Gogoratu:

- Oso garrantzitsua da zure inhalagailuak medikuak edo farmazialariak aholkatzen dizun moduan erabiltzea
- Inhalagailuak inpaktu handia dute planetaren osasunean
- Hondakinak behar bezala erabiltzeak inpaktua gutxitzen du, birziklatu edo behar bezala tratatu baitaitezke
- Horretarako, utzi zure medikamentuak farmaziako SIGRE puntuan



RECOMENDACIONES

Prescripción sostenible
de inhaladores

4

MEDIKAMENTU ARRISKUTSUAK OSASUN-INGURUNEETAN

Europako Batzordeak eguneratu egin du medikamentu arriskutsuen zerrenda, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004/37/EE Zuzentarauaren (langileak lanean ari direnean agente kantzerigeno, mutageno edo erreprotoxikoekiko esposizioak sortzen dituen arriskuetatik babesteari buruzkoa) 18 bis artikuluari jarraiki. Zerrenda hori [esteka](#) honetan eskura daiteke.

Duela gutxi, AEBko NIOSHaren (Laneako Segurtasun eta Osasunerako Institutu Nazionala) Osasun-inguruneetako Medikamentu Arriskutsuen Zerrendaren “jatorrizko” tresnaren azken eguneratzea argitaratu da. [Esteka](#) honetan eskura daiteke.

NIOSH List of Hazardous Drugs
in Healthcare Settings, 2024



[HASIERA-ra Itzuli](#)

5

ARGITALPEN INTERESGARRIAK

i-botika: Zergatik da garrantzitsua medikamentuekiko atxikidura?

Herritarren informaziorako i-botikaren fitxa berri bat argitaratu da, herritarrei medikazioarekiko atxikiduraren garrantziari buruzko informazioa emateko, sendagaiak behar bezala hartzen laguntzeko gomendioekin.

[Esteka](#) honetan ikus daiteke fitxa.

SEFAPen infografia berriak

Lehen Mailako Arretako Farmazialarien Espainiako Sozietateak (SEFAP) infografia berria argitaratu du: **Ba al dakizu zer den obesitatea eta nola saihestu?**

[Pdf formatu interaktiboa](#)

[Aurkezpen interaktiboaren formatua](#)

SEFAPen infografia horiek eta beste batzuk [web-orrian](#) ikus daitezke.

Prioritising shared decision-making

Drugs and Therapeutics Bulletin (DTB) [buletinaren editorialean](#), pertsonak ardatz dituen arretaren testuinguruan erabaki partekatuak hartzeko laguntza-tresnak edukitzearen garrantziaz hausnartzen dute. Izan ere, tresna horiek sortzea gida klinikoak garatzeko prozesuan errutinazko parte bihurtu behar dela azpimarratu dute.

2014an, “[Pazientearen partaidetza erabakiak hartzerakoan](#)” izeneko INFAC buletinean jada adierazi ziren tresna horietako batzuk erabakiak elkarrekin hartzeko.

Adverse effects of antihypertensives in frail older people

Beste [artikulu](#) honetan (DTB buletinekua hau ere) hipertentsioaren kontrako medikamentuek adineko pertsona ahulengan izan ditzaketen ondorio kaltegarriak aipatzen dira, besteak beste, giltzurrunetako min akutua eta erortzeko arriskua handitzea.

STOPPCog irizpideak

STOPPCog irizpideak dituen [artikulu](#) argitaratu berri da. Zerrendak 23 irizpide biltzen ditu guztira, kognitiboki ahulak diren adindunentzat desegokiak izan daitezkeen sendagaiekin lotutakoak. Lehendik dauden tresnei gehitzen den beste depreskripzio-tresna bat da.

Depreskripzio-irizpideak dituzten beste zerrenda batzuk, hemen eskuragarri daudenak:

- [STOPP/START irizpideak, 2023 bertsioa](#)

- [STOPP FRAIL irizpideak zainketa aringarrietan](#)
- [Depreskripzioa adinekoetan \(Lehen Mailako Arreta, 2022\)](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

6 MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA –BERREZARPENAK

AEMPSen argitalpen baten arabera, **Espanian lehen aldiz murriztu dira medikamentuen hornidura-arazoak 2020tik: [esteka](#).**


Hona hemen hilabete honetako HORNIDURA-GABEZIArik garrantzitsuenak:

- Azitromizina; klomipramina; klonazepama; flutikasona propionatoa; INNOLET gailua duten intsulinak.

HORNIDURA-BERREZARPENAK:

- Hidroxi-karbamida; berapamiloa/trandolapriloa; mianserina; azatioprina; triptorelina

PRESBIDEN “Hornidura-gabezia” botoia eskuragarri dagoela gogorarazten da, “Preskripzioen kontsulta” pantailaren beheko aldean, hornikuntza-gabeziei buruzko informazio erabilgarria erakusten duena.



Hornidura-gabeziak esteka honetan kontsulta daitezke:

- PRESBIDE: [Medikamentuen Hornidura-gabezien taula](#)
- CIMA-AEMPSen: [Hornidura-arazoak dituzten medikamentuen zerrendarako sarbidea](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

7 LMAKO MIKROBIOEN AURKAKO GIDAREN AURKEZPENA ETA AEOP SAIOAK OSASUN ZENTROETAN: GERNU-TRAKTUKO INFEKZIOAK (GTI)

Joan den otsailaren 20an, intranetean igota dagoen [LMAko mikrobioen aurkako gida](#) aurkeztu zen LMAUBen hileroko bileran.

Laster, gidaren aurkezpen orokorra egingo zaie gainerako osasun-profesionalei zoom bidez. Horrez gain, otsailean gernu-traktuko infekzioei (GTI) buruzko saioak egin dira Aranbizkarra-1 eta Zabalganeko osasun-zentroetan. Datozen asteetan saio horiek beste LMAU batzuetan ematea aurreikusi da.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

Lehen Mailako Arretako Farmazia

ARABAKo ESI-A: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

Farmazialariak: Arantza Hernández, Javier Martínez, Inés San José eta María Prieto.



Argitalpen honen edukia Osakidetzako Lehen Mailako Arretako farmazialariek egindako hileroko buletinetik egokitu da FarmaHitzak buletinak Osakidetzaren intranetean daude eskuragarri hurrengo [estekaren](#) bidez